



Ambito de la  
Administración Foral

Luzaideko Udalari  
buruzko fiskalizazio  
txosten mugatua



CÁMARA DE  
COMPTOS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
KONTUEN  
GANBARA


**AURKIBIDEA:**

I. Sarrera .....	3
II. Helburua .....	4
III. Norainokoak eta mugak .....	5
IV. Ondorioak .....	6

**Eraskinak**

I. Luzaideko Udalak aurkezturiko alegazioak.

II. Luzaideko Udalak aurkezturiko alegazioei Kontuen Ganbararen erantzuna.




## I. Sarrera

Luzaidko alkatesak 1996an txosten bat bidali zuen Kontuen Garbarara. Bertan, azken bi legealdietan Udalaren kudeaketa ekonomikoan ustez eginiko irregulartasun batzuk salatzen zituen.

Aipatu txostenak honakoa zioen: "txosten honen bitartez, herri honen Udalean eginiko irregulartasun batzuk aipatu nahi ditugu, kontuen ikuskapena egiteko premia azpimarratzeko".


Luzaide Pirinioetako Frantziako zonarekin mugatzen duen udalerria da. 1995-1-1eko erroldaren arabera 530 biztanle ditu.



## II. Helburua

Alkatesak eginiko salaketaren ondorioz, Nafarroako Kontuen Ganbarak Luzaideko Udalarari buruzko azterketa mugatua egitea erabaki zuen honako helburuak betetzeko:

- 1995eko kontuak eta egoera ekonomikoa aztertzea.
- Luzaideko alkatesak txostenean azpimarraturiko gaiak aztertzea.



### III. Norainokoak, metodologia eta mugak

Gure lana hasi baino lehen 1995eko kontuak itxi eta alkatesaren txostenean aipaturiko gaiet buruzko dokumentazioa Kontuen Ganbararen esku uzteko eskatu zitzaion Luzaideko Udalari.

Txostena burutu ahal izateko, auditore batek eta auditoretzako tekniko batek espedienteen dokumentazioa aztertu eta beharrezkotzat jotako azalpenak eskatu zituzten.

Lanak izan dituen mugak honakoak dira:

- Udalaren administrazioaren egoera azken zortzi urtetan Udalak zortzi idazkari izan dituelako.
- 1993 eta 1994ko kontuak ez dira onartu.
- Salatutako gai batzuen aintzinasuna.

#### IV. Ondorioak

a) 1995eko kontuetan oinarrituta ondorioztatzen den egoera ekonomikoari dagokionez.

Udalak, Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazio Departamentuaren laguntzaz, 1995eko kontuak egin ditu.

Kontuan hartzekoa da aurreko bi urteetako kontuak ez direla onartu eta aurrekontua ere ez zela behar bezala egin.

Kitapena, aurreko bi urteetako erresultak kontuan hartuz, honakoa da:

	Behin betiko prebisioa	Kitatutako eskubideak
Gastuak	41.851.422	56.074.488
Dirusarrerak	49.565.522	55.617.091

1995eko abenduaren 31an zor bizia 24.694.188 pezetakoa zen. 1996an birfinantzatu izan da.

Toki Administrazio Departamentuak eginiko txostena 1995eko datuetan oinarritzen da. Horren arabera, egoera ekonomikoa zaila eta zor maila zor muga baino handiagoa da.

Dena den, aipatzekoa da aurreko bi urteetako kontuak onartu ez direnez, 1995eko aurrekontuan ez zela kontuan hartu Udalak zuen gerakina, 1996an zorra birfinantzatu dela eta, halaber, 1995ean ezohiko gastuak egin zirela usategiak konpontzeko.

Hau dena kontuan hartuz eta usategiengatiko dirusarrerak eta udalaren gastuak aldatu ezean, Udalaren egoera ekonomikoa ona izanen dela ondorioztatzen ahal dugu.


Toki Administrazio Departamentuak eginiko azterketak Udalaren kudeaketa eta egoerari buruzko konklusioak eta udalaren funtzionamendua hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren aholkuak biltzen ditu.

b) Alkatesak bere idazkian bilduriko gaiei dagokienez.

*1. "Azken udal hauteskundeen ondoren Udaletxean sartu ginen zinegotziak 1993 eta 1994ko kontuak ez zirela onartu konturatu ginen. Horretarako kontraturiko profesional batek eginak, kontuen behin behineko onarpena egin zen baina ez ziren bete ondorengo tramiteak: publikoaren aurrean aurkeztea eta behin betiko onarpena".*

Azterturiko kontu espedienteak, 1993 eta 1994koak, ez daude beren osotasunean.

1993ko kontuetan honakoa falta da:



- Kontaketa-akta.
- Aurrekontuko Baloreak Independiente eta Laguntzaileak (ABIL)
- Langileri gastuetan funtzionarioen montepioaren kuotak ez direla sartzen frogatu dugu.

Aurreko urtekoak baino osoagoak izanagatik, 1994ko kontu espedienteetan ere eskatu beharreko agiri batzuk falta dira:

- Pasiboen zerrenda.
- Kontaketa-akta.
- Toki Ogasun Fondoaren dirusarrerak zenbateko gordinaren arabera kontabilizatzen direla frogatu dugu. Hori dela medio, kontuetan ez dira dirusarrera eta gastu guztiak biltzen.
- Halaber, lizentzia fiskalarengatiko dirusarrerak kitapenean bikoiztu egin direla ikusi dugu.

1991, 93 eta 94ko dirusarrera eta gastuen kontu liburuetan kutzako agirien eta ordain aginduen zerrendak idazten badira ere, ez dira kontzeptu partzialak zehazten.

Alde horretatik, aipatzekoa da kontuak egin eta azaltzea kontuhartzaileari eta lehendakariari dagokiela, hurrenez hurren. Ogasun Publikoaren Foru Legearen 117. artikulua arau-hauste kontabletzat jotzen du "eskaturiko kontuak ez aurkeztea edo akats larriez aurkeztea".

Osoko bilkurak kontuak ez onartu izanak erantzunkizunik sortzekotan, bakarrik, horretarako arrazoizko justifikaziorik ez balego sortuko luke.

Bertzalde, gure ustez, udal berriak, aurreko urteetako kudeaketaren arduraduna ez izan arren, onartu gabeko kontuak egin eta onartu behar ditu. Aipatzekoa da 1995eko kontuekin horixe egin duela.

2. "1993 eta 1994an usategien adjudikazioa kontratazio zuzenaren bidez egin zen. Egia da enkantea antolatzen zela, baina finkaturiko prezioak hain handiak zirenez, inork ez zuen parte hartzen eta ehiztegiak adjudikazio zuzenaren bidez saltzen ziren arauteriak agintzen dituen bigarren eta hirugarren enkantea egin gabe. Usategietako bat kontratista batek Udalari eginiko lanen kontura adjudikatu zen".

1993an eta 1994an ez omen zen usategien adjudikaziorako enkanterik egin ez baita horri buruzko dokumentaziorik.

Udalak duen dokumentazioaren arabera, hona konklusioak:

- 1991ean usategien enkantea ahoz egin zen “sexteo”-rako aukera eman, Nafarroako Toki Administrazioaren, 6/90, uztailaren 2koa, 231.artikuluak agindutakoaren arabera.

- 1992an ere enkantea ahoz egin zen baina ez zen “sexteo”-rik egin. Dena den, behin lehen enkantea eginez gero, udalak eman gabe geldituriko usategiak zuzenean adjudikatzea eta enkantearen baldintzen orrian zehazturiko prezioak handitzea erabaki zuen.

- 1994an Udalak usategiak ahoz eta enkantean adjudikatzeko baldintza orria onartu bazuen ere, ez omen zen enkanterik egin.

1992 eta 1993an 3. usategia 1.725.000 pezetatan, BEZ barne, eman zitzaion enpresa bati. Dirutza hori ordaintzeaz gain, enpresak bi pilota jaialdi antolatu zituen.

1992an ere usategi batzuen ordainketa (2.645.000 pezeta) Luzaideko Udalarentzat eginiko lanen ordainagiri baten bidez konpentsatu zen.

- 1995ean usategien adjudikazioa ahoz eta enkantean egin zen.

1996an Udalak usategiak enkante publikoan eskaintzeko erabakia hartu zuen baina Udaleko idazkariak hori legezkontrakoa izan zitekeela ohartarazi eta 20tik 28ra arteko postuak baxenafarroako ehiztari hiru urtez zuzenean adjudikatzea erabaki du.

- Hau dena, Gabarbide, Luzaideko ehiz eremu nagusiari dagokio.

Euntzanoko ehiz barrutia laupabortz urtetarako adjudikatzen da zuzenean.

Beraz, Udaletxean dauden txostenen arabera ondorioak hauek dira: Luzaideko usategiak zuzenean adjudikatu ziren 1993, 1994 eta 1996an legez bete beharreko prozedurari muzin eginez. Izan ere, legeak agindutakoaren arabera, hiru enkante egin behar ziren eta, usategiak eman gabe geldituz gero, adjudikazioa zuzenean egin daiteke baina kasu horretan prezioak, gutxienez, azken enkantean finkaturikoa behar du izan. Udalak 1993ko adjudikazioaren luzapena onartzean “ehiztari eta Udalarari eginiko manipulazio eta presioengatik” egiten dela dio. Konpentsazio ordainketei dagokienez, normalak eta legekoak dira.

*“3. Udalak ordaindu behar ez dituen fakturei dagozkien ordain-agiriak egiaztatu ditugu. Esate baterako, mediku-zentroaren telefonoa eta medikuaren etxearena, beti medikuak ordaindu dituenak”.*

Egia da Udaletxera heltzen diren telefono-fakturen ordain-aginduak daudela baina faktura horiek kontuan zordundu egiten dira eta, aipatu kasuetan, fakturan agertzen den kontua ez da Udalarena. Ban-



ku-agiriak aztertu eta gero, Udalak, garai hartan, Udaletxeari dagoz-kion fakturak bertzerik ez zituela ordaintzen egiaztatu dugu.

Azterturiko dokumentazioaren arabera ondorioztatzen ahal dugu ordain-agindua gaizki egin bazen ere, horrek ez zuela ordainketarik eragin.

*"4. Alkate jauna udal etxebizitza batean bizi da. Bere familiak urtean 1.000 pezeta bertzerik ez du ordaintzen. Udalak derrigorrez luzatu beharreko errentapen-kontratua alkatearen emazteak sinatu zuen bere senarra alkatea zela. Harrez geroztik, Udalak obra batzuk ordaindu ditu etxebizitzan. Arrosaragay jaunaren agintaldian Udalak hiru milioitik gora gastatu duela kalkulatu du."*

Udala, hau dena desegokia zela eta, etxebizitza berreskuratzen saiatu da. Txosten juridikoa eskatu ondoren Estatu Kontseiluari berteko txosten bat eskatzea erabaki zuen aipatu akordioa azter zezan.

Estatu Kontseiluak Udalaren aldeko txostena egin du honakoa esanez: "El Guardiano" etxaldearen errentapen-adjudikazioa berraztertu eta egin beharreko iharduerak egin behar dira Udalari ustez sorturiko kaltea ordaintzeko".

Estatu Kontseiluak adjudikazioa balio gabetu egin du eta etxea husteko prozesua hasi du.

Etxaldearen maizterrak udal akordioen aurkako errekurtsioa aurkeztu du.

*"5. Arrosagaray jauna 13.214 metro karratuko komunal-eremuaren sailkapena aldatu eta bere semari 5,49 pezetatan saltzen saiatu zen 1992an, udalaren bilkura-aktak zehazten duen bezala".*

Lur komunalaren sailkapen aldaketa eta ondorengo adjudikazioa Nafarroako Administrazio Auzitegian errekurritu zen. Oraindik ez da epairik ezagutzen.

Dena den, aipatzekoa da udal akordioek ez dutela euskarri formalk ez baita agiririk egin eta, beraz, lur eremuaren jabetzan ez da aldaketarik izan, ez zesio eta ez salmentarik.

Laburbilduz, udal akordioak ez dira bete.

*"6. Udalak noizean behin egin behar dituen lanak dagokienez, gehienak zinegotzi edo euren seni-tartekoek egin dituzte. Udalak kontzeptu honengatik 2.000.000 pezeta gastatu zituen 1994an. Auzolanetan traktorea gidatzeagatik ere kobratu izan da".*

Ohikoa da herritarrek noizean behin egin beharreko lanak egitea. Zenbateko murrizteko lanok kontratatzerakoan kontuan hartu diren irizpideak ez ditugu ezagutzen. Legeriak debekatuagatik, batzutan lan horiek zinegotziek egin dituztela frogatu dugu.

Enkargaturiko lanak eginak dira eta ordainketak ere onartuta daude.

Gure iritziz, lan horiek egiteko interesa duen edozeinek aukera izan beharko luke lana burutzeko eta hori bermatzen duen sistema bat martxan jartzea litzateke egokiena.

Etengabeko lanei dagokienez, zabor-bilketa esaterako, publizitatea eta konkurrentzia ziurtatzen dituen adjudikazio sistema zehaztu beharko litzateke (enkantea, lehiaketa...).

Horrekin batera, Udalak kontratazio guztietan legeak Gizarte Segurtasuna eta Ogasun arloetan (pertsonak fisikoak badira) eta Ogasun arloan (persona juridikoak badira), aginduriko baldintza guztiak betetzeko beharra duela azpimarratu nahi dugu.

*"7. Pedro Pascualena Goyenaren izenean 1993ko ordain- agindu bat dago ikastetxe publikoaren beheko solairuan eginiko lanengatik. Horrekin batera aurkezturiko oharrak dio bakarrik BEZ eta PFEZri dagokien zatia ordaintzeko. Izan ere, lan horiek zinegotzi batek egin zituen".*



Egia da aipatu izena duen ordain-agindua dagoela eta diru-irteera ordain-agindu osoari dagokio.

Fondoan irteera diruz egin zenez, finantza entitatea da zenbatekoa nork jaso zuen jakin lezakeena.

*"8. Arrosagaray jaunak "El Guardiano" etxaldea jatxetxat erabili zuen legez kontra. Berak bazkaltzera gonbidaturiko agintari batzuen faktura bat dago, faktura hori Udalak ordaindu bait zuen".*

"El Guardiano" izeneko etxaldea ehiztaroen atsedentokitzat eralbiltzen da eta, horren ondorioz, ehiztariei zerbitzuak eskaintzen dizkie.

Egia da badela agintariekin eginiko bazkari bati dagokion 240.000 pezetako ordain-agindu bat.

Hemen bi gauza ezberdin direla aipatu nahi dugu:

a) Legez anpokoa izan litekeen iharduera komertziala. Erabilera komertzialak baimentzeko eta, ondorioz, arlo horretan neurriak hartzeko ahalmena Udalak du.

b) Bazkaria udal fondoez ordaindu izana. Bazkaria egin baldin bazen eta gastua horretarako ahalmena duen organoak onartu bazuen, arazo juridikorik ez dago. Nolanahi ere, hori egitea egoki eta komenigarria den ala ez eztabaidagarria izan daiteke ikuspuntu politikotik begiratuta.

"9. Azkenik, alkatetza lortu eta gero agentzia beterazlearen esku zegoen 185.000 pezetako isuna, Udalak berari jarritakoa, kentzea lortu zuen.

Alkateak 87-7-8an sinaturiko idazkia bertzerik ez dugu jaso. Agentzia beterazleari zuzenduriko idazkiaren bitartez Nekazaritza Kontseilaritzak jarritako isunaren kobrantzarako ekintza bertan behera uzteko eskatzen zaio. Aipatu dokumentuak gehiegizko artzantzagatik jarritako isuna bertan behera uzteko erabilitako prozeduraren berririk ez du eskaintzen.

Isuna ez kobratzeko erabakia horretarako ahalmena duen organoak hartu behar du isuna bertan behera uzteko arrazoiak aztertzen dituen espedientea onartu eta gero.

Laburbilduz, eta konklusio nagusi gisa, epaitegietan dauden auziak alde batera utzita, honako hauek lege-hausteak direla erran nahi dugu:


- Konturik ez aurkeztea edo akats larriez aurkeztea.
- Lan edo zerbitzuak konkurrentziarik gabe adjudikatzea.
- Lanak zinegotziei adjudikatzea.
- Isunak bertan behera uztea legeriak finkaturiko prozedurak bete gabe.

Hau dena kontutan hartuz, hauxe gomendatzen dugu:

*Udalaren kontuei dagokienez, 1993 eta 1994ko kontuak egitea, nahiz eta oraingo udala garai hartako kudeaketaren arduraduna ez izan.*

*Udalaren kudeaketa orokorrari dagokionez, administrazioak legeak eta finkaturiko prozedurak betetzeko beharra du. Alde horretatik, gogoratu nahi dugu haren iharduerak gardentasuna, publizitatea eta konkurrentzia irizpideak errespetatu behar dituela.*

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12an



Francisco Javier Tuñón San Martín  
Lehendakaria

# Eraskinak

31660 LUZAIDE  
Hiriko  
UDALA  
(Nafarroa)



AYUNTAMIENTO  
DE LA VILLA DE  
31660 VALCARLOS  
(Navarra)

Telefonoa 79 01 17

Teléfono 79 01 17

CÁMARA DE COMPTOS DE NAVARRA	NAFARROAKO KONTUEN GANBARA
- 8 MAYO 1997	
ENTRADA / SARRERAN.º .....199.....	

ALEGACIONES QUE PRESENTA EL AYUNTAMIENTO DE LUZAIDE-VALCARLOS SOBRE  
EL INFORME DE REVISIÓN LIMITADA ELABORADO POR LA CAMARA DE COMPTOS.

Examinado el contenido del informe presentado por la Cámara de Comptos, procede efectuar dos puntualizaciones sobre la adjudicación del aprovechamiento cinegético de los puestos palomeros.

1.- Puestos de Lindux (números 20 a 28 del Coto Gabarbide):

En 1.996 se adjudicaron directamente los puestos 20 a 28 de Lindux. Por el especial trazado de la frontera en la zona de Lindux, la paloma entra primero por la parte española para pasar después a territorio francés. En esta zona los puestos españoles están situados delante de los de la parte francesa. Ha sido frecuente que, al intentar cazar desde el lado español, los franceses espantaran la paloma, disparando al aire. Esta situación ha dado lugar a constantes peleas entre los cazadores de ambos lados. Esto retrae a los cazadores de pujar por estos puestos en las subastas ( Como ejemplo, se adjuntan copias de las actas de las subastas del año 1.995. En la primera de ellas, uno de los licitadores se queja por los problemas que surgen. Así mismo, se puede comprobar cómo los puestos van quedando desiertos en las sucesivas subastas).

Anteriormente a esta subasta, hacía unos 8 años que los puestos no se vendían para evitar enfrentamientos, y se dejaba que los franceses cazaran desde sus puestos. La actual Corporación decidió sacarlos a subasta en 1.995 con los pésimos resultados que se reflejan en las actas. Esto hizo que en 1.996 se viera obligada a llegar a un acuerdo con los franceses.

2.- Puestos de Eunzaro:

En el informe de la Cámara de Comptos consta que el coto Eunzaro

31660 LUZAIDE  
Hiriko  
UDALA  
(Nafarroa)



AYUNTAMIENTO  
DE LA VILLA DE  
31660 VALCARLOS  
(Navarra)

Telefona 79 01 17

Teléfono 79 01 17

se adjudica directamente para 4 o 5 años. Esta afirmación no es correcta. El anterior alcalde contrató su aprovechamiento de forma directa (Se adjuntan copias de los contratos). La actual Corporación ha respetado los periodos de arriendo de estos contratos, pero con intención de subastar los puestos a la finalización de los mismos. Así, en 1.996 se subastó medio coto. (Se adjunta copia de acta de la subasta). En 1.998 saldrá a subasta el resto del coto.

De todo lo expuesto se desprende que se ha producido un cambio radical en la forma de adjudicación de los puestos, que nos gustaría que quedara reflejado en el informe definitivo de la Cámara de Comptos. En la anterior legislatura la contratación directa era la tónica general. Actualmente se respeta la normativa vigente. Únicamente se ha producido una pequeña excepción, y por razones que entendemos que han quedado sobradamente justificadas.

En Valcarlos, a 6 de mayo de 1.997.

Fdo.: Ana Isabel Elizondo Ainciburu  
Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Valcarlos.

## 2. Eraskina. Luzaideko Udalak aurkezturiko alegazioen erantzuna

Luzaideko Udalak aurkezturiko alegazioak usategien probetxamenduei buruzkoak dira.

Lehendakaritza honek alegazio horiek kontuan hartu eta Kontuen Ganbararen txostenaren eraskin gisa sartzea erabaki du. Izan ere, funtsean, txostenaren edukina aldatzen ez badute ere, usategien arazoak argitzen dituztela uste baitugu. Kontutan hartu behar da udalerrri honetan usategiak ikuspuntu ekonomikotik zein gizarte ikuspuntutik begiratuta, garrantzi handikoak direla.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12an

  
Francisco Javier Tuñón San Martín  
Lehendakaria